

PIRINIOETAKO FAUNA (I)

Marmota

Eneko Imaz

HONAKO hau hainbat artikuluz osotuko den (asmoa behintzat hori da) sail batetako lehena da. Artikulu hauetan Pirinioetako zenbait animaliren gora-beherak aipatuko ditut, asko bait gara mendiotan ibili ohi garenak, baina gehiegitan inguruan zer dagoen jakin gabe; batzutan animaliak berak ikustea erraza ez delako, eta bestetan ikusi arren beraiei buruz

askorik ez dakigulako.

Noski, asmoa ez da fauna guztia azaltzea.

Oraingoan nahiko ugaria den animalia aipatuko dut. Hain zuzen ere, ikusi baino gehiago entzun egiten den marmota. Animalia hau, beti adi dagoenez, gehienetan berak ikusiko gaitu guk bera ikusi baino lehen. Orduan txistu egin eta kolonia osoa bapatean lurpean ezkutatuko da.



Marmotak.
Jennyren marrazkia.

Jenny Feb '96

Marmota

Marmotak, katagorriekin lotura estua duten karraskari lurtarrak dira, beren ezau-garri nagusia hibernazioa delarik.

Marmota arrunta (*Marmota marmota*) animalia menditarra da. Helduek, urte-sasoia ren arabera, 4-6 kg. artean dituzte, eta 60 cm-tarainoko luzera. Beren ilajea oso dentso eta ugaria da, eta ez dirudien arren, animalia oso arinak dira batetik bestera mugitzeko orduan. Egutiarrek dira eta ikusmena oso garatua dute, laino itxia dagoenean ere ederki ikus dezaketelarik.

Historia

Marmota espezie hau Europan, Alpeetan eta Tatra mendietan sortu zen, Ipar Ameriketatik Cuaternarioan etorri zen arbasotik abiatuz. Beraz, mendikate hauek dira bere jatorrizko lekuak, baino geroztik Europako hainbat lekuetan (Juran, Oihan Beltzean, Pirinioetan) sartzapenak egin dira eta gaur bere distribuzioa zabalagoa da.

Pirinioetan, zehazki Frantzia aldean, 1948 urtean hasi ziren sartzapenekin, ondorengo urtetan ere jarraituz; bereziki 1967. urtean Park National des Pyrénées Occidentaux sortu zutenetik.

Lehenagoko urteetan ale batzuk ikusi izan baziren ere, marmota, hegoaldeko isurrian, 1979. urteaz geroztik dagoela esan daiteke. Bertan sartzapenik egin ez denez, modu ofizialean behintzat, populazio hauek Frantzia aldetik pasatako aleetatik sortu direla pentsatu behar da. Ondorioz, gaur egun marmota, Nafarroako Larratik hasi eta Gironarainoko goi larreetan bizi da, beti ere magal eguzkitsuak eta zulatzeak errazak diren lurzorua bilatzen saiatzen delarik.

Hibernazioa

Goñi mendietan bizi izateak hainbat ondorio ditu, kasu honetan nabarmenena hibernazioa delarik. Hibernazio hau, tenperatura hotzak eta elurrak, edo eta biek batera ondorioztatzen duten elikagai eskasiak bultzatuta gertatzen da.

Neguko loaldia orokorrean irailaren bukaera edo urriaren hasieratik apirilarte-koa da, sei hilabete ingurukoa, baina noski aldakorra da lekuan lekuko baldintzen arabera. Horrela hegoaldeko isuriko baldintza termiko hobeek lagundurik, hibernazioak 4 hilabete inguru dirau, eta ez da zaila azarotik ere marmotak ikustea.

Koloniako aleak gradualki sartzen dira hibernatzera, baina azkenean zuloaren sarrera lur pila handi batez ixten dute, bai babeserako eta baita isolamendu termikorako ere. Zuloa itxi eta 3-4 aste ondoren lokartuko dira aurretik pilaturiko lasto artean biribilkatutik.

Hibernazioak termoerregulazio eza dakar eta honek zenbait ondorio ditu: gorputzeko tenperatura 3-9°C artara jeisten da, bihotzeko taupadak minutuko 5-10 izango dira eta



Marmotari asko gustatzen zaio eguzkia hartzea, baina beti dago adi eta jateko ere ez da zulotik gehiegi urruntzen.



Harri handiak dauden tokietan berezko zuloak ugariagoak dira, beraz, lan gutxiago egin behar du.



Marmota gorotzak. Normalean, letrinak erabili ohi ditu bere eginbeharretarako.



Marmota oiantzak. Kasu honetan aurreko eta atzeko anken oiantzak gainjarriak daute.

oxigeno kontsumoa berriz ohikoa baino 40 aldiz baxuagoa. Azken finean tasa metabolikoa 50-60%ra jeitsiko da. Hala ere, neguan

honela iraun ahal izateko, udaren zehar gantz-geruza lodia metatuko dute gorputzean. Bestalde tasa metabolikoa hain baxua izan arren, 3 edo 4 astean behin beren eginbeharretarako esnatu beharra dute, horretarako galeria barruan bereziki prestaturiko letrina erabiliz. Gainera, galeria barruko tenperatura zero graduz azpikoa bada, gorputzeko zenbait erreazio martxan jartzen dira eta hauek sorturiko beroak ere, animalia esnarazten dute. Modu honetan izotzuta hiltzea ekiditen dute marmotek.

Ugalketa

Araldia, martxo-apirila artean hasten da, hibernazioa bukatu bezain azkar, eta kopulatu berriz, apirilean egin ohi dute lurrazpian. Bost asteren buruan kume erabat biluziak jaioko dira eta lurpean egongo dira ekainaren amaiera edo uztailaren hasiera arte. Urtean kumaldi bakarra dute eta bakoitzean 2-4 (zenbaitetan 2-7) kume jaio ohi dira, denbora tarte honetan arrek portaera erabat territoriala erakutsiz.

Talde familiar bakoitza 1-2 ar helduz, 1-3 eme helduz, urteko kumez eta 1-2 urteko kumez osatua dago. Marmota gazteek hirugarren urterako lortuko dute heldutasun sexuala.

Ekologia

Aurretik esan bezala Penintsulara Frantzia aldetik sartu ziren, baina kolonizazio honek baditu jokamolde batzuk: batetik toki kolonizagarria sartzapen puntutik zenbateko distantziara dagoen eta sartzapenen ugaritasunak eragiten dute. Bigarrenik erliebea dago; toki oso malkatsuak ez dira kolonizaziorako egokiak eta beraz oztopo izango dira. Bailara eta mendi-lepoek berriz, kolonizazioa erraztu eta bideratu egingo dute. Gainera habitata selekzionatzeko garaian, ahal izanez gero, toki eguzkitsuak aukeratu dituzte. Azken honek iparraldeko isuritik hegoalderako kolonizazioa bultzatu du. Hirugarrenez gizakiaren presioa dago. Alpeetan eta Faintziako Pirinioetan giza presioa arazoa bihurtu da kolonia berriak sortzeko garaian, marmotek ez bait dute ganaduaren presentzia onartzen, eta zenbait tokitan mendizale edo bisitarien ugaritasunak ere ez die lasai egoten uzten.

Habitat selekzioari dagokionez badago diferentziarik Alpeetako eta Pirinioetako marmoten artean. Honela Alpeetan, badiurdi haizeak eta behe-lainoak ez dutela eragirik, baina euriak nagikeria sortzen die zulotik ateratzeko garaian. Pirinioetan aldiz, nahiz eta orokorrean toki eguzkitsuak gustatu, oso egun beroetan zulo barruan gertatzen direla dirudi, eta euriak edo eta behe-laino itxiak ez diete arazorik sortzen.

Azkenik, elikadurari dagokionez, marmotak batipat herbiboroak dira, landare belarkarak eta sustraia jaten dituztelarik, bereziki gramineo eta konposatuak, baina tarteka artropodo eta zizareren bat ere jan ohi dute.

Argazkiak: Joseerra Alhartzeta eta Eneko Imaz